Bestelako Xedapenak

OSASUN SAILA

2057

1061/2009 EBAZPENA, martxoaren 23koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez arautzen da Osakidetzako kategoria ez-sanitarioen eta Lanbide Heziketako osasun arloko kategorien lanbide garapeneko I., II., III. eta IV. mailen aitorpena.

Abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuko (kategoria ez-sanitarioen eta Lanbide Heziketako osasun arloko kategorien lanbide garapena arautzen duena) 11. artikuluaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari dagokio maila bakoitzean kokatzeko ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea.

Dekretu horretako aldi baterako lehen xedapenean aurreikusita dago aldi baterako ebaluazio-erregimena, eta fase horretan hiru deialdi egitea erabaki zen:

a) Lehenengo deialdian, I. eta II. mailak deituko dira deialdia egiten den egunean lanean 16 urte, gutxienez, eman duten profesionalentzat, eta ondorio ekonomikoak 2007ko urtarrilaren 1etik hasiko dira.

b) Bigarren deialdian, I. eta II. mailak deituko dira gainerako profesionalentzat, eta ondorio ekonomikoak 2008ko urtarrilaren 1etik hasiko dira.

c) Hirugarren deialdian, 4. artikuluko betekizunak betetzen dituzten profesional guztientzat maila guztietarako deialdia egin da, aldez aurretik ebaluatutakoak barne direla, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorio ekonomikoekin.

Administrazio jarduerak errespetatu beharreko efikazia eta eraginkortasun printzipioetan oinarrituta, deitu beharreko mailen homogeneotasuna kontuan hartuta, Ebazpen honetan aipatutako 3 deialdiak batzen dira, baina profesional batzuentzako eta besteentzako baldintza eta ondorio-data desberdinak errespetatuz.

Horregatik guztiagatik eta kontuan hartuta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretua eta ekainaren 3ko 106/2009 Dekretuak egindako egokitzapenak, zeinen bidez 2008ko martxoaren 14ko bilkuran Sanitateko Mahai Sektorialak lortutako Akordioa onartzen baita, eta bere 5. atala,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua eta eremua.

Deialdi honen helburua da I., II., III. eta IV. maietan sartzeko betekizunak egiaztatzeko agiriak eta eska-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2057

RESOLUCIÓN 1061/2009, de 23 de marzo, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se regula el reconocimiento de los niveles I, II, III y IV de desarrollo profesional de las categorías no sanitarias y las del área sanitaria de Formación Profesional de grado Superior y medio de Osakidetza.

Conforme al artículo 11 del Decreto 248/2007, de 26 de diciembre, por el que se regula el desarrollo profesional de las categorías no sanitarias y las del área sanitaria de Formación Profesional de grado Superior y medio de Osakidetza, corresponde a la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud efectuar la convocatoria del proceso de evaluación para el encuadramiento en cada nivel.

La Disposición Transitoria Primera de dicho Decreto prevé un régimen transitorio de evaluación, estableciéndose la realización en esta fase de tres convocatorias:

a) En la primera convocatoria, se convocarán los niveles I y II para profesionales con al menos 16 años de servicios prestados a la fecha de la convocatoria, con efectos económicos desde el 1 de enero de 2007.

b) En la segunda convocatoria, se convocarán los niveles I y II para el resto de profesionales, con efectos económicos de 1 de enero de 2008.

c) En la tercera convocatoria, se convocarán todos los niveles para la totalidad de los profesionales que reúnan los requisitos del artículo 4, incluyendo los previamente evaluados, con efectos económicos desde el 1 de enero de 2008.

En base a los principios de eficacia y eficiencia que deben regir las actuaciones administrativas, considerando la homogeneidad de los niveles a convocar, se refunde en la presente Resolución las 3 convocatorias mencionadas aunque respetando los distintos requisitos y fechas de efectos para unos y otros profesionales.

Por todo ello y teniendo en cuenta el Decreto 248/2007, de 26 de diciembre y las adaptaciones realizadas por el Decreto 106/2008, de 3 de junio por el que se aprueba el Acuerdo alcanzado en la Mesa Sectorial de Sanidad, en sesión del día 14 de marzo de 2008 y en su apartado 5,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto y ámbito.

El objeto de la presente convocatoria es la regulación de la presentación de solicitudes y de la documentación

bideak nola aurkeztu arautzea. Osakidetzako kategoria ez-sanitarioen eta Lanbide Heziketako osasun arloko kategorien lanbide garapena arautzen duen dekretuaren 5. artikuluan daude zehaztuta betekizun horiek.

Prozesu honetan parte hartzea eska dezakete Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko A2, B2, C, D eta E lanbide taldeetako lanpostu funtzionaletan dauden profesionalek, Osakidetzan aktiboan edo antzeko egoeran daudenek, betiere 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Eskabidea aurkeztea borondatezkoa da eta bertan interesatuak egiaztatu beharko du 2. artikuluan adierazten den unean betetzen dituela baldintzak.

2. artikulua.– Betekizunak.

A) 16 urte edo gehiagoko egindako zerbitzuak dituzten profesionalak (248/2007 Dekretuaren Aldi Baterako 1. Xedapena, a)

a) Osakidetzan plazadun finkoa izatea 1. artikuluan aipatzen diren lanbide taldeetakoren batean.

b) Aktiboan egotea enplegu finkoarekin 2008ko urtarrilaren 1ean eta horrela jarraitzea orain ere. Data horretaz geroztik, erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik edo heriotzagatik baja hartu duten profesionalei dagokienez, ofizioz sartuko dira.

c) Osakidetzan edo Osasun Sistema Nazionaleko osasun erakundeetan gutxienez 16 urteko egindako zerbitzuak izatea maila lortu nahi den lanbide talde berean, edo eskabideak aurkezteko epean lortzea.

B) 5 urte edo gehiagoko egindako zerbitzuak dituzten profesionalak (248/2007 Dekretuaren Aldi Baterako 1. Xedapena, b eta c).

a) Osakidetzan aktiboan edo antzeko egoeran egotea, abenduaren 16ko 55/2003 Legean (osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatu Markoari buruzkoa) ezarritakoarekin bat etorriz:

– Enplegu finkoa duten langileentzat, eskabideak aurkezteko epean. 2008ko urtarrilaren 1ean aktiboan zeuden profesionalen kasuan, erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik edo heriotzagatik baja hartu badute, prozesura ofizioz sartuko dituzte.

– Langile ez-finkoentzat, eskabideak aurkezteko epearen hasieran edo epeko edozein unetan, baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte:

• Osakidetzan hiru urteko zerbitzuak eginda, aitormena eskatzen duen lanbide taldean, eskabidea egiteko epea hasi aurre-aurreko 5 urte lehenago egindakoak.

• EPEko azken prozesuan parte hatu izana, eskatu den kategoriako azterketa benetan eginda, ezinbesteko

acreditativa de los requisitos previstos en el artículo 5 del decreto de regulación del desarrollo profesional de las categorías no sanitarias y las del área sanitaria de Formación Profesional de grado Superior y medio de Osakidetza, para el acceso a los niveles I, II, III y IV.

Podrán solicitar la participación en este proceso los profesionales en puestos funcionales de grupos profesionales A2, B2, C, D y E de Osakidetza-Servicio vasco de salud en situación de activo o asimilada en Osakidetza que reúnan los requisitos establecidos en el artículo 2.

La presentación de la solicitud es voluntaria y en la misma el interesado deberá acreditar cumplir los requisitos exigidos en el momento señalado en el artículo 2.

Artículo 2.– Requisitos.

A) Profesionales de 16 años o mas de servicios prestados (DT Primera a) del Decreto 248/2007).

a) Ostentar la condición de fijo con plaza en Osakidetza en alguno de los grupos profesionales relacionados en el artículo 1.

b) Encontrarse en situación de activo con relación de empleo fijo a 1 de enero de 2008 y continuar en la actualidad. Los profesionales que hayan causado baja con posterioridad a dicha fecha por jubilación, incapacidad permanente o fallecimiento el acceso se realizará de Oficio.

c) Tener prestados al menos 16 años de servicios en el mismo grupo profesional desde el que se opta al reconocimiento de Nivel en Osakidetza o en las organizaciones sanitarias del Sistema Nacional de Salud o alcanzarlos dentro del plazo de presentación de solicitudes.

B) Profesionales de 5 o mas años de servicios prestados (DT Primera b) y c) del Decreto 248/2007).

a) Estar en situación de activo o asimilada en Osakidetza, de conformidad con lo establecido en la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto marco del personal estatutario de los Servicios de Salud:

– Para el personal con relación de empleo fijo, en el plazo de presentación de las solicitudes. Los profesionales que se encontraban en activo a 1 de enero de 2008 y hayan causado baja con posterioridad por jubilación, incapacidad permanente o fallecimiento, la incorporación al proceso se realizará de Oficio.

– Para el personal no fijo, al inicio o en algún momento del plazo de presentación de las solicitudes, siempre y cuando reúna las condiciones siguientes:

• Tres años de servicios prestados en Osakidetza en el grupo profesional desde el que se opta al reconocimiento, prestados en los cinco años inmediatamente anteriores al inicio del plazo de solicitud.

• Haber tomado parte en el último proceso de OPE con realización efectiva del examen de la categoría des-

kasuetan izan ezik, betiere dagokion eskabidea egin denean.

b) 5 urte edo gehiagoko zerbitzuak izatea edo eskabideak aurkezteko epe barruan lortzea, lortu nahi den lanbide taldean, 248/2007 Dekretuaren aldi baterako lehen xedapenaren b) atalari dagokionez, eta 106/2008 Dekretuaren 5. atalean ezarritakoaren arabera.

Osasun Zerbitzu Nazionaleko osasun erakundeetan lanbide talde berean egindako zerbitzuez gain, kategoria berean beste Herri Administrazioetan egindako zerbitzuak % 50ean baloratuko dira.

Lanbide garapena lortu nahi den lanbide taldean 5 urte lortutakoan, lanbide talde desberdinetan egindako zerbitzuak gehitu ahal dira, betiere Osasun Sistema Nazionaleko osasun erakundeetan egindakoak badira, eta balore hauen arabera:

de la que se opte, salvo causa de fuerza mayor y siempre y cuando se hubiese realizado la oportuna solicitud.

b) Tener prestados 5 o más años en el grupo profesional desde el que se opta, en relación al apartado b) de la DT Primera del Decreto 248/2007, y conforme a lo dispuesto en el apartado 5 del Decreto 106/2008 o alcanzarlos dentro del plazo de presentación de solicitudes.

Además de los servicios en el mismo grupo profesional en las organizaciones sanitarias pertenecientes al Servicio Nacional de salud, se valorarán los servicios prestados en la misma categoría en otras Administraciones Públicas a razón de un 50%.

Una vez reunidos los 5 años de Servicios en el grupo profesional desde el que se opta al desarrollo profesional, se podrán añadir los prestados en grupos profesionales distintos siempre que estos se hayan prestado en la Organizaciones sanitarias del Sistema Nacional de Salud a razón de los siguientes valores:

<table>
<tr><th>Sarbidea taldetik</th><th colspan="11">Taldeetan egindako zerbitzuen balioa</th></tr>
<tr><td></td><td>A1</td><td>A2</td><td>B1</td><td>B2</td><td>C1</td><td>C2</td><td>C3</td><td>D1</td><td>D2</td><td>D3</td><td>E1</td></tr>
<tr><td>A2</td><td colspan="2">100%</td><td colspan="2">75%</td><td colspan="3">50%</td><td colspan="3">25%</td><td>15%</td></tr>
<tr><td>B2</td><td colspan="4">100%</td><td colspan="3">75%</td><td colspan="3">50%</td><td>25%</td></tr>
<tr><td>C1</td><td colspan="7" rowspan="3">100%</td><td colspan="3" rowspan="3">75%</td><td rowspan="3">50%</td></tr>
<tr><td>C2</td></tr>
<tr><td>C3</td></tr>
<tr><td>D1</td><td colspan="10" rowspan="3">100%</td><td rowspan="3">75%</td></tr>
<tr><td>D2</td></tr>
<tr><td>D3</td></tr>
<tr><td>E1</td><td colspan="11">100%</td></tr>
</table>

Acceso desde grupo	*Valor de los servicios prestados en los grupos*										
	A1	*A2*	*B1*	*B2*	*C1*	*C2*	*C3*	*D1*	*D2*	*D3*	*E1*
A2	*100%*		*75%*		*50%*			*25%*			*15%*
B2	*100%*				*75%*			*50%*			*25%*
C1	*100%*							*75%*			*50%*
C2											
C3											
D1	*100%*										*75%*
D2											
D3											
E1	*100%*										

2006ko EPEn barne-sustapeneko txandan plaza lortu dutenek, deialdi honetan, aukera dezakete: lanbide garapena eskatzea eskabidea egiten duten unean dauden kategoriatik edo hautaketa-prozesu aurretik zeukaten kategoriatik.

3. artikulua.– Egoera berezietako salbuespenak.

a) Senideak zaintzeko eszedentzia duten profesionalak, Erakundeak emandako prestakuntzarako baimena edo euskara ikasteko liberatuak, beti ere egoera hori urte batekoa baino luzeagoa bada. Kasu horietan, jarduera asistentzialari eta erakundearekiko inplikazio eta konpromisoari dagozkien arduradunak ebaluatutako faktoreetako puntuazio gisa, euren unitate edo zerbitzuko profesionalek euren antzinatasun-taldean lortutako batezbesteko puntuazioa esleituko zaie, egoera horretan dauden bitartean.

b) Zerbitzu berezietako edo sindikatu-ordezkapeneko edo langileen ordezkapeneko funtzioak egiteagatiko lizentzia duten profesionalei antzinatasunagatik dagokien mailaren gutxieneko puntuazioa esleituko zaie.

4. artikulua.– Eskabideak.

a) Aurkezteko lekua eta modua. Parte hartzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu beharko du Internet bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren www.osanet.euskadi.net web-orrian, edo Korporazioko Intraneten dagoen eredua betez.

Informatika-aplikazioak erakusten duen curriculum vitae bete beharko dute hautagai guztiek.

Quienes hayan obtenido plaza mediante el turno de Promoción interna en la OPE 2006 podrán optar, en esta convocatoria, por solicitar el desarrollo profesional desde la categoría que ostentan en el momento de la solicitud o desde la que ostentaban antes del proceso selectivo.

Artículo 3.– Excepciones en situaciones especiales.

a) Profesionales en excedencia para el cuidado de familiares, permiso para la formación concedido a instancia de la Organización o liberado para el estudio de euskera, siempre que la duración de la situación sea superior a un año. En estos casos, se les asignará como puntuación de los factores evaluados por el mando de actividad asistencial e implicación y compromiso con la Organización, durante el período en que permanezcan en dicha situación, la puntuación media obtenida por los profesionales de su Unidad o Servicio dentro de su grupo de antigüedad.

b) A los profesionales en situación de servicios especiales o licencia por ejercicio de funciones de representación sindical o del personal, se les asignará la puntuación mínima del nivel al que por antigüedad pudieran acceder.

Artículo 4.– Solicitudes.

a) Lugar y forma de presentación. Cada participante deberá presentar una única solicitud a través de Internet, mediante la cumplimentación del modelo que se facilita en la propia página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud en la siguiente dirección www.osakidetza.euskadi.net, o en la Intra net Corporativa.

Todos los aspirantes deberán cumplimentar el apartado de curriculum vitae que le muestre la aplicación informática.

Aurreko paragrafoan adierazitako moduan eskabidea egiteko behar diren informatika-baliabideak jarriko ditu Osakidetzak, dituen zerbitzu-erakundeen bitartez.

Prozesuan onartua izateko, ezinbestekoa da eskabidea behar den denboran eta moduan betetzea eta eskaeraren kopia inprimatua aurkeztea, horretarako epearen barruan.

b) Epea. Eskatzaileek euren eskabideak 4.a artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztu ahalko dituzte, 2009ko martxoaren 25eko 08:00etatik 2009ko maiatzaren 5eko 14:00ak arte.

5. artikulua.– Datuen zehaztasuna.

Eskabidean eta aurkezten diren agiri eta informazioetan datu faltsuak jarriz gero, zehatu egingo da eskabidea ezeztatuz; horretaz gain, legez dagozkion neurriak hartuko dira.

Eskabidean adierazten den helbidea izango da jakinarazpenak egiteko balioko duen bakarra. Beraz, eskatzailearen erantzukizuna izango da bai helbidea jartzerakoan akatsen bat egitea bai, helbidea aldatuz gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari horren berri ematea.

6. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

4.b) artikuluan aurreikusitako epe barruan, egindako eskabidearen ordezkagiria aurkeztu beharko dute hautagaiek beren zerbitzu-erakundean. Atxikita dauden zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zerbitzuak eskatuko die Curriculum vitaen mekanizatutako merituak egiaztatzeko dokumentazioa, horrela balioztatu ahal izateko.

Aurkeztu beharreko agiriak jatorrizkoak izan beharko dira edo bestela, jatorrizkoaren fotokopia konpultsatuak. Fotokopian honako hauek adieraziko dira: konpultsaren arduradunaren izenpea (irakurtzeko modukoa), NAN, izen-abizenak eta eguna.

Zerbitzu aktiboan gabe beste egoeraren batean daudenek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Erakunde Zentralaren egoitzan aurkeztu beharko dituzte agiriak (Araba kalea, 45 zk., 01006 Vitoria-Gasteiz).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik egindako agiri baten bidez onartuta dauden merituak baino ez dira baloratuko.

7. artikulua.– Ebaluatzeko prozedura.

Ebaluazio-prozesuan parte hartuko dute langileak berak, ebaluazioa egingo zaionak lan egiten duen unitate edo zerbitzuko arduradunak eta zerbitzu-erakundean horretarako osatutako ebaluazio-batzordeak.

Osakidetza facilitará a través de sus organizaciones de servicios los medios informáticos precisos para realizar la solicitud conforme a lo previsto en el párrafo anterior.

La admisión al proceso requiere haber cumplimentado en tiempo y forma y entregado copia impresa de la solicitud dentro del plazo de presentación, la correspondiente solicitud.

b) Plazo. Los solicitantes podrán presentar sus solicitudes, conforme lo que se establece en el artículo 4.a, desde las 08:00 horas del día 25 de marzo de 2009 y hasta las 14:00 horas del día 5 de mayo de 2009.

Artículo 5.– Exactitud de los datos.

La consignación de datos falsos en la solicitud, así como en la documentación e información que se aporten, se sancionará con la anulación de la solicitud, sin perjuicio de la adopción de las medidas legales que correspondieran.

El domicilio que se indique en la solicitud se considerará el único válido a efectos de notificaciones, siendo responsabilidad exclusiva del solicitante tanto los errores en su consignación como la comunicación de cualquier cambio del mismo a Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Artículo 6.– Documentación a aportar.

Dentro del plazo previsto en el articulo 4.b, los aspirantes deberán presentar ante su Organización de Servicios resguardo de la solicitud efectuada. La documentación acreditativa correspondiente a los méritos mecanizados en el currículum vitae, le será requerida, para su oportuna validación, por el Servicio de Personal de la Organización de Servicios a la que se halle adscrito.

La documentación acreditativa deberá ser original o fotocopia compulsada de la misma, conteniendo ésta la siguiente información: fecha, nombre y apellidos, DNI y firma legible del responsable de la compulsa.

Quienes se encuentren en situación diferente a la de servicio activo, deberán presentar la referida documentación en la Sede de la Organización Central de Osakidetza-Servicio vasco de salud, c/ Álava 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.

Únicamente podrán valorarse los méritos si estuvieran reconocidos mediante documento expedido con fecha anterior a la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Artículo 7.– Procedimiento de evaluación.

En el proceso de evaluación participarán el propio profesional, el Responsable del Área, Servicio o Unidad donde preste servicios el/la evaluado/a, y el Comité de Evaluación de la Organización de Servicios constituido al efecto.

Ebaluazioa egingo zaion langileak, eskabidearen unean, bere jokabidea modu objektiboz adieraziko du Prestakuntza, Irakaskuntza eta ezagutza-zabaltzeari eta baita jarduera, gaitasun eta lanbidea betetzeari buruz garrantzizkotzat jotzen duenari buruzko merituak egiaztatzeko informazioa emanez.

Zerbitzuko edo unitateko arduradunaren egitekoa da ebaluazioa egiten zaionaren jarduera-eremua, gaitasuna eta betetze profesionala ebaluatzea, bai eta Erakundearekiko konpromisoa eta inplikazioari buruzkoak ebaluatzea ere. Ondoren, emaitzak azken ebaluazioari erantsiko dizkio -nahiz eta, hori gorabehera, ebaluatu daitezkeen gainerako faktoreak ebaluatzeko ere dei diezaioketen-, eta zerbitzu-erakundeko Ebaluazio Batzordean aurkeztu beharko du egindako ebaluazioaren emaitza.

Zerbitzu-erakundeko Ebaluazio Batzordeak jaso eta aztertuko ditu prozesuan sortutako agiriak, unitateko edo zerbitzuko arduradunek egindako ebaluazioei dagozkienak, bai eta ebaluatutako profesionalek egindako autoebaluazioa ere. Emaitzak ikusita, ebaluazioa sakontzeari egoki irizten badio, ebaluatuaren ebaluazio osagarri bat egiteko eska diezaieke bere unitate edo zerbitzuko profesionalei, edo bestela, garapen profesionalaren sisteman sartuta dagoen beste zerbitzu-erakunde bateko profil profesional bereko profesionalei.

Ebaluazio Batzordeak behar den epean eta eran baloratuko ditu merituak interesatuak aurkeztutako agirietan oinarrituta. Eskabideak aurkezteko epea amaitu artekoak zenbatuko ditu; izan ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik aurkeztu eta egiaztatu ez diren merituak ez dira inoiz ere baloratuko.

3.b) artikuluko profesionalei Erakunde Zentraleko ebaluatzailea eta Ebaluazio Batzordea esleituko zaizkie.

Profesionalak ebaluatzeko ardura duten organoei azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluak aplikatuko zaizkie (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Ebazpen honen I . eranskinean, A eta B taldeetako profesionalei eman beharreko merituen baremoa onartzen da, II. eranskinean, C eta D taldeetako profesionalei eman beharrekoa eta III. eranskinean, E taldekoei eman beharrekoa.

8. artikulua.– Ezarpen-fasean ebaluatzeko irizpideak.

Edonola ere, ebaluazioa gainditu beharko da, abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 8. artikuluan maila bakoitzerako ezarritako gutxieneko puntuazioa lortuz. Eskatzailearen historia profesional guztia ebaluatuko da maila bakoitzean aplikatu daitezkeen alderdietan. Hona hemen zehaztapenak:

El profesional a evaluar, en el momento de la solicitud, objetivará sus comportamientos a través de la información acreditativa de los méritos de Formación, Docencia y Difusión del conocimiento e Investigación, así como la que considere relevante a nivel de actividad, competencia y desempeño profesional.

El/la Responsable del Área, Servicio o Unidad tiene la función de evaluar los ámbitos de actividad, competencia y desempeño profesional del evaluado/a, así como las relativas a implicación y compromiso con la Organización, incorporando los resultados a la evaluación final, sin perjuicio de que pueda ser requerido para la evaluación del resto de factores evaluables, presentando el resultado de su evaluación ante el Comité de Evaluación de la Organización de Servicios.

El Comité de Evaluación de la Organización de Servicios recibirá y analizará toda la documentación generada a lo largo del proceso, proveniente de las evaluaciones realizadas por los Responsables de Área, Unidad o Servicio más la autoevaluación de los profesionales evaluados. Si, a la vista de los resultados, considerara conveniente ampliar la evaluación, podrá recabar una evaluación complementaria del evaluado a profesionales de su Unidad o Servicio, o en su caso, de su perfil profesional de otra Organización de Servicios integrados en el sistema de desarrollo profesional.

El Comité de evaluación valorará los méritos en base a la documentación que, en tiempo y forma, fuera aportada por el/la interesado/a, computándose los mismos hasta la finalización del plazo de presentación de solicitudes. En ningún caso podrán valorarse los méritos que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

A los profesionales del artículo 3.b) se les asignará el evaluador y Comité de evaluación de la Organización Central.

A los órganos encargados de la evaluación de los profesionales, les serán aplicables los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Mediante el anexo I de esta Resolución se aprueba el Baremo de Méritos aplicable a los profesionales de los grupos A y B, en el anexo II el Baremo aplicable a los Grupos C y D y en el anexo III el correspondiente al Grupo E.

Artículo 8.– Criterios de evaluación en la fase de implantación.

En todos los casos, deberá superarse la correspondiente evaluación alcanzando la puntuación mínima, para cada nivel, establecida en el artículo 8 del Decreto 248/2007, de 26 de diciembre, evaluándose toda la historia profesional del solicitante en aquellos aspectos aplicables en cada nivel, con las especificidades que se recogen en los siguientes apartados:

Egindako zerbitzuengatik dagokion eta nahi duten maila lortzeko eskatzen den bloke bakoitzeko gutxieneko puntuazioa deialdi honetan lortzen ez dutenei ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren 5.4) atalean aipatutakoa aplikatuko zaie. Dekretu horren bidez, Sanitateko Mahai Sektorialean, 2008ko martxoaren 14ko bileran, lortutako Erabakia onartu zen, puntuazio korporatibo gehigarri baten bidez.

9. artikulua.– Mailak esleitzeko prozedura.

a) Mailak esleitzeko behin-behineko ebazpena.

Ebaluazio-Batzordeak, bere jarduera amaitutakoan, egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda prestatu eta onartuko du, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusira igorriko.

Korporazioko batzordeak txostena bidali ondoren, Osakidetza-Euskal osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du ebazpen baten bidez. Horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da azaroaren 26ko 30/1992 legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

b) Mailak esleitzeko behin betiko ebazpena.

Jarritako errekurtsoak Zuzendaritza Nagusiak erabakiko ditu, eta lortutako mailak behin betiko esleituko, ebazpen bidez. Ebazpen hori EHAAn argitaratuko da. Ebazpen horrek administrazio-bidea agortuko du.

10. artikulua.– Ebaluazioaren ordainketa-ondorioak.

2.A artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten profesionalentzako I. eta II. mailen zenbatekoak eta kopuruak abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 12.1 artikuluan ezarritakoak izango dira.

Gainerako I., II., III. eta IV. mailek, eta pertsonal finkoarentzat, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorio ekonomikoak, ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren 5. atalean onartutako zenbatekoekin. Aipatu dekretuaren bidez, 2008ko martxoaren 14ko bileran Sanitateko Mahai Sektorialean lortutako Akordioa onartu zen.

Destinoa 2006ko EPEn lortu duen pertsonalak, lehen fasean lanpostuaz jabetzen denetik, lehenagokoa bada, edo 2008ko ekainaren 1etik. Destinoa ondoriozko fasean lortu dutenek, lanpostuaz jabetzen diren egunetik.

Gainerako pertsonal ez-finkoarentzako ondore-data 2008ko EPEa amaitzen den egunetik aurrerakoa izango da, edo, bestela, 2009ko uztailaren 1etik.

A quienes en esta convocatoria no alcancen la puntuación mínima por bloque requerida para alcanzar el Nivel al que por servicios prestados puedan optar les será de aplicación lo señalado en el apartado 5.4) del Decreto 106/2008, de 3 de junio, por el que se aprueba el Acuerdo alcanzado en la Mesa Sectorial de Sanidad, en su reunión del día 14 de marzo de 2008 mediante una puntuación adicional corporativa.

Artículo 9.– Procedimiento de asignación de niveles.

a) Resolución provisional de asignación de niveles.

El Comité de evaluación, finalizada su actuación, elaborará y aprobará la relación provisional de los niveles acreditados, remitiendo la misma a la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Una vez emitido informe por el Comité Corporativo, la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud ordenará su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución, contra la que podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

b) Resolución definitiva de asignación de niveles.

La Dirección General procederá a resolver los recursos interpuestos y a la asignación definitiva de los niveles alcanzados, mediante resolución que será publicada en el BOPV. Esta Resolución pondrá fin a la vía administrativa.

Artículo 10.– Efectos retributivos de la Evaluación.

Los importes de los niveles I y II para los profesionales que reúnan los requisitos establecidos en el artículo 2.A y las cuantías serán las establecidas en el artículo 12.1 del Decreto 248/2007, de 26 de diciembre.

El resto de los Niveles I, II, III y IV, y para el personal fijo, tendrán efectos económicos de 1 de enero de 2008, con las cuantías aprobadas en el apartado 5 del Decreto 106/2008, de 3 de junio por el que se aprueba el Acuerdo alcanzado en la Mesa Sectorial de Sanidad, en sesión del día 14 de marzo de 2008.

El personal que haya obtenido destino en la OPE-2006, en la primera fase desde la fecha de toma de posesión si es anterior o desde 1 de junio de 2008. Quienes hayan obtenido destino como consecuencia de la fase de resultas la fecha de efectos será la de la toma de posesión.

La fecha de efectos para el resto del personal no fijo será desde la fecha de finalización de la OPE-2008 o en todo caso desde el 1 de julio de 2009.

Pertsonal ez-finkoak lanbide taldearen lanbide garapeneko mailari dagozkion zenbatekoak kobratuko ditu, lanbide talde horretan egindako zerbitzuetan aitortutako denboraldietakoak. Aitortutako azken mailari dagokion zenbatekoa bakarrik kobratu ahalko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan berariaz jaso gabekoetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuan jasotako arauak aplikatuko dira (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 248/2007 Dekretua, Osakidetzako goi-mailako eta erdi-mailako kategoria ez-sanitarioen eta osasun arloko Lanbide Heziketako kategorien lanbide garapena arautzen duena), eta baita 2008ko ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren 5. atalean jasotako egokitzapenak ere.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du. Beraz, horren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, hil biko epean; biak ere ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikuluetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena).

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 23a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

El personal no fijo percibirá los importes correspondientes al Nivel de desarrollo profesional del grupo profesional reconocido en los periodos en los que preste servicios en dicho grupo.

Sólo podrá percibirse el importe correspondiente al último nivel reconocido.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto expresamente por la presente Resolución, serán de aplicación las normas contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y el Procedimiento Administrativo Común y en el Decreto 248/2007, de 26 de diciembre, por el que se regula el desarrollo profesional de de las categorías no sanitarias y las del área sanitaria de Formación Profesional de grado Superior y medio de Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como las adaptaciones recogidas en el apartado 5 del Decreto 106/2008, de 3 de junio de 2008.

Segunda.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante la Directora General de Osakidetza en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo en el plazo de 2 meses, a contar en ambos casos desde el día siguiente al de su publicación en el BOPV, conforme a lo establecido en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en los artículos 8.3 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Tercera.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2009.

La Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

I. ERANSKINA

A2 ETA B2 TALDEEN MERITU BAREMOA

A BLOKEA

1. faktorea.– Jarduera eta lanean aritzea.

1.1. azpifaktorea.– Helburuak lortu eta betetzeko orientazioa.

Ebaluazio-mota

☐ Profesionalaren ekarpena

☐ Arduradunaren ebaluazioa (galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Jarduera indibiduala	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 60
Unitate/zerbitzuen helburuetarako ekarpena		

1.2. azpifaktorea.– Eraginkortasuna baliabideak kudeatzen.

Ebaluazio-mota: Arduradunaren ebaluazioa (galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Antolakuntza, plangintza eta arazoak konpontzea	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 20
Baliabideak erabiltzea		

2. faktorea.– Lanbide jakintza.

2.1. azpifaktorea.– Jakintza teknikoa.

Ebaluazio-mota

☐ Profesionalaren ekarpena

☐ Arduradunaren ebaluazioa (galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Jakintza teknikoa eta eguneratze profesionala	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 80

2.2. azpifaktorea.– Gaitasun profesionala.

Ebaluazio-mota: Arduradunaren ebaluazioa (Galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Erabiltzailearekiko harremana eta gogobetetzea	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 40
Zorroztasun profesionala		

B BLOKEA

Baremo honetan aipatutako merituak baloratze aldera, ez dira horrela baloratzen betetzen den lanpostuan egiten den ohiko lana, lan horren eduki propioa eta espezifikoa. Ebaluazio-batzordeak erabakiko ditu zein diren jarduera horiek.

Nazioarteko edo estatuko curriculum-meritu desberdinak barematze aldera, nazioartekotzat joko dira gutxienez lau herrialdetara mugatzen diren gertaerak, eta estatu-eremutzat lurralde bakar batera (autonomia edo haren lurraldea) mugatzen direnak.

3. faktorea.– Prestakuntza.

Graduondoko prestakuntza eta etengabeko prestakuntza:

Atal honetan graduondoko prestakuntza hartuko da kontuan, Unibertsitateek edo horiei atxikitako erakundeek emandako titulu edo diplomak, prestakuntza aurreratu espezializatukoak edo diziplina anitzekoak, eta baita egindako etengabeko prestakuntza ere. Etengabeko prestakuntzatzat joko dira, behin oinarrizko titulazioa edo dagokion espezialitatekoa lortu ondoren, gaitasun profesionala mantendu, areagotu edo hobetzera zuzendutako jarduerak.

Kontuan hartuko dira graduondoko titulazioak eta honako arloetan jasotako etengabeko prestakuntza:

- ☐ Prestakuntza diziplina profesionaleko eta betetako lanpostuko eduki beretan, eta baita haiei lotutako tresna teknikoetan ere.
- ☐ Prestakuntza antolakuntza-, kudeaketa- eta berrikuntza-tresnetan.

Bakarrik hartuko dira kontuan graduondoko titulazioak edo erakunde ofizialek, unibertsitateek, zentro publikoek edo kontzertatuek, erakunde sanitarioek, administrazioko entitate eta erakundeek, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta ziurtatutako etengabeko prestakuntza, baita ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izenpetutako Etengabeko Prestakuntzako Akordioaren ondorioz emandako eta ziurtatutako ikastaroak, betiere titulazio ofizial bat ateratzeko ikasketa-plan baten barruan ez badaude.

Graduondoko titulazioak edo jasotako etengabeko prestakuntza eskuratutako kredituen arabera puntuatuko dira, baldin eta kredituok Etengabeko Prestakuntzako Kontseiluak edo Estatuko Unibertsitateek emandakoak badira. Titulazioak edo prestakuntzak ez badu horrelako krediturik, jasotako prestakuntza-orduen arabera puntuatuko da (hortik kanpo gelditzen dira praktiketako edo erakundeetako egonaldietan egindako orduak, titulu bat edo dagokion ziurtagiria lortzeko eskatu ahal direnean).

<table>
<tr><th colspan="4">Graduondoko prestakuntza eta etengabeko prestakuntza</th><th>Puntuak</th></tr>
<tr><td rowspan="4">Graduondoko prestakuntza eta etengabeko prestakuntza

(kredituen arabera balioztatuko da edo krediturik ezean, iraupen-orduen arabera.

(gehienez, 25 p. /prestakuntza</td><td rowspan="2">Presentziala</td><td rowspan="2">Etengabeko Prestakuntzako Kontseiluaren kredituak / Unibertsitateko kredituak
Erakunde ofizialek egiaztatutako orduak</td><td>Kreditu bakoitzeko puntuak

Puntuak 10 orduko</td><td>0,8</td></tr>
<tr><td>Ordu bakoitzeko puntuak</td><td>0,08</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Ez presentziala</td><td>Etengabeko Prestakuntzako Kontseiluaren kredituak/Unibertsitate-kredituak</td><td>Kreditu bakoitzeko puntuak</td><td>0,8</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Erakunde ofizialek egiaztatutako orduak</td><td>Puntuak 10 orduko</td><td>0,6</td></tr>
<tr><td>Ordu bakoitzeko puntuak</td><td>0,06</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Bilera zientifiko-teknikoetara (jardunaldiak, kongresuak, mahai-inguruak, etab.) joatea

(kredituen arabera balioztatuko da edo krediturik ezean, iraupen-ordu/egunen arabera.</td><td colspan="2">Etengabeko Prestakuntzako Kontseiluaren kredituak / Unibertsitateko kredituak</td><td>Kreditu bakoitzeko puntuak</td><td>0,8</td></tr>
<tr><td colspan="2">Krediturik gabe</td><td>Puntuak eguneko

Puntuak 5 orduko</td><td>0,3</td></tr>
<tr><td colspan="3">IT Txartela ziurtagiriak</td><td>Puntuak/txartela</td><td>0,4</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Lanpostua hartzeko eskatzen ez diren bestelako titulazio akademikoak</td><td colspan="2">Lizentziatura</td><td rowspan="2">Titulu bakoitzeko</td><td>4</td></tr>
<tr><td colspan="2">Diplomatura (B taldea soilik)</td><td>4</td></tr>
</table>

4. faktorea.– Irakaskuntza eta jakintzaren hedapena.

Honako eremuetan egindako irakaskuntza-jarduerak baloratuko dira:

- ☐ Irakaskuntza diziplina profesionaleko eta betetako lanpostuko eduki beretan, eta baita haiei lotutako tresna teknikoetan ere.
- ☐ Irakaskuntza antolakuntza-, kudeaketa- eta berrikuntza-tresnetan.

Unibertsitateek, zentro publikoek edo kontzertatuek, erakunde sanitarioek, administrazioko entitate eta erakundeek, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta ziurtatutako irakaskuntza-jarduerak bakarrik hartuko dira kontuan. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira.

Irakaskuntza				Puntuak
Graduatu aurreko irakaskuntza	Irakasle titularra*	Lizentziatura	Puntuak guztira	6
		Diplomatura		4
		Lanbide Heziketa		2
	Irakasle elkartua/laguntzailea	Lizentziatura	Puntuak/urte akademikoa	3
		Diplomatura		3
		Lanbide Heziketa		2
	Graduatu aurreko praktiken tutore arduraduna	Lizentziatura	Puntuak/urtea	2
		Diplomatura		2
		Lanbide Heziketa		1
Irakaskuntza Etengabeko prestakuntza	Emandako ikastaroak		Puntuak/ordua	0,2
	Graduondoko ikastaroko praktiketako tutore arduraduna		Puntuak/ikasturtea	0,5
	Proiektuak ebaluatzea (tesinak, graduondokoak, etab.)		Puntuak/proiektua	0,3

Ezagutza hedatzea				Puntuak
Txostena *	Nazioartekoa	Lehen egilea/txostengilea	Puntuak/txostena	2,8
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea	Puntuak/txostena	2
	Estatukoa/Eskualdekoa	Lehen egilea/txostengilea	Puntuak/txostena	2
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea	Puntuak/txostena	1,2
Ahozko komunikazio, bideo-komunikazio, poster-komunikazioa*	Nazioartekoa	Lehen egilea/txostengilea	Puntuak/komunikazioa	1,5
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea	Puntuak/komunikazioa	1,1
	Estatukoa/Eskualdekoa	Lehen egilea/txostengilea	Puntuak/komunikazioa	1,2
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea	Puntuak/komunikazioa	0,8
Dibulgazioko komunikazioak/parte-hartzeak lanbideko eremuan (hitzaldiak, aurkezpenak eta abar)			Puntuak/komunikazioa	0,3

Ezagutza hedatzea				Puntuak
Artikuluak argitaratzea	Nazioarteko aldizkaria	Lehen egilea	Puntuak/artikulua	3,3
		Egile laguntzailea	Puntuak/artikulua	2,1
	Estatuko aldizkaria	Lehen egilea	Puntuak/artikulua	2,1
		Egile laguntzailea	Puntuak/artikulua	1,7
	Eskualdeko aldizkaria	Lehen egilea	Puntuak/artikulua	0,9
		Egile laguntzailea	Puntuak/artikulua	0,8
Liburuak (tesiak, txostenak, jardunaldi eta kongresu jakinarazpenak)	Osakidetzak argitaratutako liburuetan egile gisa parte hartzea		Puntuak/liburua	3,3
	Liburua (ISBNdun liburuak)	Zuzendaria/egilea/editorea/koeditorea	Puntuak/liburua	4,3
	Kapitulua (ISBNdun liburuak)	Lehen egilea	Puntuak/kapitulua	1,3
		Egile laguntzailea	Puntuak/kapitulua	0,9
* Txostenek edo komunikazioek sari edo goraipamen bat jasotzen badute, euren puntuazioa % 50 areagotuko da (moderatzailea alde batera utzita).				

Jakintza zabaltzearekin eta organo eta batzordeetan parte-hartzearekin lotutako beste meritu batzuk				Puntuak
Irakaskuntzako eta jakintzaren hedapenerako jarduerak antolatzea; ikastaroak, biltzarrak, jardunaldiak, mahai-inguruak eta abar	Batzorde Antolatzaile/ Zientifikoko presidentea	Nazioartekoa	Puntuak/gertaera	4,3
		Estatukoa/eskualdekoa	Puntuak/gertaera	2,3
	Batzorde Antolatzaile/ Zientifikoko presidenteordea	Nazioartekoa	Puntuak/gertaera	2,3
		Estatukoa/eskualdekoa	Puntuak/gertaera	1,8
	Batzorde Antolatzaile/ Zientifikoko kidea	Nazioartekoa	Puntuak/gertaera	1,8
		Estatukoa/eskualdekoa	Puntuak/gertaera	1,3
Parte hartzea Irakaskuntza eta Etengabeko Prestakuntzako, Ikerkuntzako Batzordeetan, Ikerkuntza-Etikako Batzordeetan.			Puntuak/urtea	0,5

<table>
<tr><th colspan="3">Jakintza zabaltzearekin eta organo eta batzordeetan parte-hartzearekin lotutako beste meritu batzuk</th><th>Puntuak</th></tr>
<tr><td rowspan="3">Ondorengo organo-batzordeetan parte-hartzea:
– Batzorde klinikoak
– Kalitateko Batzordeak
– Segurtasun eta Lan-Osasuneko Batzordea
– Pertsonala kontratatzeko Batzordea
– Euskarako Batzordea
– Mugikortasuneko Batzordea
– Erosketetarako Batzordea
– Ingurumen Batzordea
– Osasun Sailak, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeko kideek izendatutako lan-taldeak.
– Lan-taldeak (egonkorrak edo proiektu espezifikoak egiteko), zerbitzu-erakundeko Gerente-Zuzendariak edo bere Zuzendaritza Kontseiluko kideek izendatuak.</td><td>Presidente edo idazkari gisa</td><td>Puntuak/ batzordea</td><td>0,6</td></tr>
<tr><td>Kide gisa</td><td>Puntuak/ batzordea</td><td>0,4</td></tr>
<tr><td>Ordezko gisa</td><td>Puntuak/ batzordea</td><td>0,3</td></tr>
<tr><td colspan="2">Zerbitzu erakundeetako lanbide garapenerako Ebaluazio Batzordeetan parte-hartzea</td><td>Puntuak/ urtea

Gehienez 5 puntu</td><td>0,4</td></tr>
</table>

5. faktorea.– Ikerkuntza eta berrikuntza.

Ikerkuntza-proiektuak, barneko Ikerkuntza Batzorde batek, erakunde finantzatzaileak, edo deialdi publiko baten bidez emandako proiektuaren Ebaluazio Agentziak ebaluatuta (Azken kasuan, deialdian ezarritako epean amaitutako proiektuak bakarrik hartuko dira kontuan).

<table>
<tr><th colspan="3">Ikerkuntza eta berrikuntzako jarduerak</th><th>Puntuak</th></tr>
<tr><td rowspan="3">Erakunde finantzatzaile edo proiektuak ebaluatzeko agentzia batek ebaluatutako ikerkuntza edo azterketa proiektuak, deialdi publiko baten bidez emanak.</td><td>Proiektuaren arduraduna</td><td>Puntuak/proiektua</td><td>4,5</td></tr>
<tr><td>Proiektu-taldeko kidea</td><td>Puntuak/proiektua</td><td>2,5</td></tr>
<tr><td>Landa-laneko kolaboratzailea</td><td>Puntuak/proiektua</td><td>0,8</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Zerbitzu-erakundeak eskatutako edo abalatutako ikerkuntza-, berrikuntza edo analisi-proiektuak edo azterketak eta bertako gerenteak edo bere Zuzendaritza Kontseiluko kideek ziurtatuta.</td><td>Proiektuaren arduraduna</td><td>Puntuak/proiektua</td><td>2,5</td></tr>
<tr><td>Proiektu-taldeko kidea</td><td>Puntuak/proiektua</td><td>1,5</td></tr>
<tr><td>Landa-laneko kolaboratzailea</td><td>Puntuak/proiektua</td><td>0,5</td></tr>
<tr><td colspan="4">* Proiektuek sari edo goraipamen bat jasotzen badute, euren puntuazioa % 50 areagotuko da.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Doktorearen titulua (ez dira kontuan hartzen doktoretzako ikastaroak eta Ikerkuntzako Nahikotasuna)</td><td>Tesien jabe izatea</td><td>8</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikerkuntzako nahikotasuna (ez dira kontuan hartzen doktoretzako ikastaroak)</td><td>Ikerkuntzako nahikotasuna izatea</td><td>4,5</td></tr>
<tr><td colspan="2">Doktoretza-tesiaren zuzendaritza</td><td>Zuzendutako tesia</td><td>2</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Erakunde ofizial batek onartutako diziplina profesionalari lotutako Adituen Batzordean parte hartzea</td><td>Koordinatzailea</td><td>Puntuak/batzordea</td><td>2,5</td></tr>
<tr><td>Laguntzailea</td><td>Puntuak/batzordea</td><td>1,5</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Euskaliten Ebaluazio taldean parte hartzea</td><td>Ebaluatzaile seniorra</td><td>Puntuak/egindako ebaluazioa</td><td>2,5</td></tr>
<tr><td>Ebaluatzailea</td><td>Puntuak/egindako ebaluazioa</td><td>1,5</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Berraztertzailea edo Editorial Batzordekoa izatea diziplina profesionalari lotutako aldizkari zientifiko-teknikoan</td><td>Nazioarteko Editorial Batzordea</td><td>Puntuak/batzordea</td><td>3</td></tr>
<tr><td>Nazioko Editorial Batzordea</td><td>Puntuak/batzordea</td><td>2,5</td></tr>
<tr><td>Eskualde/tokiko Argitalpen-Batzordea</td><td>Puntuak/batzordea</td><td>1,5</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikerkuntza/Berrikuntza/Analisi-Proiektu edo azterketen ebaluatzailea finantza-erakunde edo proiektuak ebaluatzeko agentzia batean</td><td>Puntuak guztira</td><td>2,5</td></tr>
</table>

C BLOKEA

6. faktorea.– Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa (Gehienez 45 puntu).

6.1. azpifaktorea.– Talde-lana.

Ebaluazio-mota: Arduradunaren ebaluazioa (Galdetegia).

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Elkarlana	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 40

6.2. azpifaktorea.– Erakundearekiko lankidetza.

Ebaluazio-mota: Arduradunaren ebaluazioa (Galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Helburuekiko konpromisoa eta erakundean parte hartzea	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 40

Ebaluazio-mota: Merituen baremoa (Curriculuma), gehienez 5 puntu.

<table>
<tr><th colspan="3">Organo eta Batzordeetan parte hartzea (1)</th><th>Puntuak</th></tr>
<tr><td rowspan="4">a) Aldizkari Ofizialean argitaratutako organo edo batzordeetan parte hartzeko izendapenak:
– Administrazioko Hautaketa Epaimahaiak
– Lanbide Garapeneko Batzorde Korporatiboa
– Osasun Saileko Aholku Batzordeetan parte hartzea
– Ikasketak gehitzeko laguntza-batzordea
– Bilera zientifikoak antolatzeko laguntza-batzordea
– Kontratazio-mahaiak
– Aldizkari Ofizialean argitaratutako bestelako organo-batzordeak

b) Hautatze epaimahaietan eta ebazpen bidez izendatutako beste organo batzuetan parte hartzeko izendapenak

c) Osakidetzako langileen lan-baldintzen Akordioa aplikatzearen ondorioz sortutako organo, batzorde edo komisiotan parte hartzeko izendapenak.</td><td>Presidente edo idazkaria:</td><td>Puntu/epaimahaia-batzordea</td><td>0,6</td></tr>
<tr><td>Ordezko kidea</td><td>Puntu/epaimahaia-batzordea</td><td>0,4</td></tr>
<tr><td>Ordezko presidente idazkaria</td><td rowspan="2">Puntu/epaimahaia-batzordea</td><td>0,3</td></tr>
<tr><td>Ordezko kidea</td><td>0,2</td></tr>
</table>

(1) Puntuazio hau B blokean zenbatu ahal izango da, IV. Maila esleitzeko, hala behar izanez gero, C blokean gutxieneko puntuazio lortzeko behar ez denean.

6.3. azpifaktorea.– Hobetzeko jarrera eta aldaketara moldatzea.

Ebaluazio-mota: Arduradunaren ebaluazioa (Galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Hobetzeko jarrera eta aldaketetara egokitzea	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 40

II. ERANSKINA

C ETA D TITULAZIO TALDEEN MERITUEN BAREMOA

A BLOKEA

1. faktorea.– Jarduera eta lanean aritzea.

Ebaluazio-mota

☐ Profesionalaren ekarpena

☐ Arduradunaren ebaluazioa (galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:
Jarduera eta emaitzekiko ekarpena	5 gradu ebaluatzen dira
Arazoak konpontzea	
Hurrenkera eta baliabide-erabilera	

2. faktorea.– Gaitasuna eta lanbide jakintza.

Ebaluazio-mota

☐ Profesionalaren ekarpena

☐ Arduradunaren ebaluazioa (galdetegia)

Itemak:	Ebaluazioa:
Lanbidean eguneratu eta hobetzea	5 gradu ebaluatzen dira
Erabiltzailearekiko harremana eta gogobetetzea	

B BLOKEA

Baremo honetan aipatutako merituak baloratze aldera, ez dira horrela baloratzen betetzen den lanpostuan egiten den ohiko lana, lan horren eduki propioa eta espezifikoa. Ebaluazio-batzordeak erabakiko ditu zein diren jarduera horiek.

3. faktorea.– Prestakuntza.

Etengabeko prestakuntza:

Atal honetan egindako etengabeko prestakuntza baloratuko da, hau da, oinarrizko titulazioa edo dagokion espezialitatekoa lortu ondoren, gaitasun profesionala mantentzeko, areagotzeko edo hobetzeko egiten diren prestakuntza-jarduerak.

Ondorengo eremu hauetan jasotako etengabeko prestakuntza baloratuko da:

- ☐ Prestakuntza, lanbideko eta betetako lanpostuko eduki beretan, eta baita haiei lotutako tresna teknikoetan ere.
- ☐ Prestakuntza, antolakuntza-, kudeaketa- eta berrikuntza-tresnetan, etab aita antolakuntza-gaietan eta erakundearen funtzionamendu orokorrean ere.

